

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak Toki Ogasunen finantzaketa KPI gehi bi punturekin eguneratuko du 2016an

Toki Administrazioaren erreforma izan da Lehendakariak Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioarekin egindako bilkuraren beste gai bat

Lunes, 16 de noviembre de 2015

Nafarroako Gobernuak 2016an KPI gehi bi puntutan gehituko du toki-erakundeek Transferentzia Arrunten Funtsean izan beharreko partaidetza; haren bidez finantzatzen dituzte udalek bere gastu arruntak (pertsonala, bulegoak, hornidurak...).

Hala iragarri du Nafarroako Lehendakari Uxue

Barkosek gaur goizean Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko ordezkariekin Nafarroako Jauregian egindako bilkuran; azken asteotan merindade buru diren udalerrietako alkateekin nahiz Tafallakoarekin egindako errondako azken bilera izan da, arazo eta gai erkideak jorratzeko asmoz.

Adierazi duenez, igoera horrek ez ditu udalen beharrak asetzen, baina "Gobernuak nondik nora lan egin behar duen marrazten du, krisiari toki-erakundeekin adostutako lanean oinarrituz aurre egiteko".

Bestalde, Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko lehendakari eta Lodosako alkate Pablo Azkonak azaldu duenez, bilkuran, gobernu-organoen osaera berria aurkezteaz gain (iragan hilean berrituak), hainbat gairi heldu zaie berriz, egiteke dagoen Toki Administrazioaren erreforma, esaterako, eta Gobernuari gonbita luzatu dio hemendik aurrera gai horretan lan egin dezan, "udal eta herritarrentzat oso garrantzitsua den gaia, haiek baitira gure zerbitzuak jasotzen dituztenak". Alde horretatik, adierazi du "erreforma egitea premiazkoa dela, baina lasaitasunez egin behar dela izaera egonkorra izan dezan, eta zerbitzuak modu eraginkor batean berriz antola ahal daitezen".

Bilkuran, Barkos Lehendakaria eta Pablo Azconarekin batera, honako hauek parte hartu dute: Nafarroako Udalerri eta Kontzejuen Federazioko lehen lehendakariorde eta Cintruenigoko alkate Raquel Garbayok, eta bigarren lehendakariorde eta Olloko alkate Francisco Javier Pérezek.



Ezkerretik eskuinera: Garbayo, Barkos Lehendakaria, Azcona eta Pérez.